

ELURRARI DAGOKION IRAGARPEN BEREZIA - # 19/2019 2019/01/21 an 19:30etan SORTUA (ordu lokala)

""Probabilitate handiena"duen egoerari loturiko iragarpen berezia, neguko bidezaintza zerbitzuek eskatuta

Kontuz ibili, beraz, orduekin, baita pilatutako prezipitazioarekin, gutxi gorabeherakoak baitira

PREZIPITAZIOAREN INTENTSITATEA / ELUR-KOTA / BANAKETA GEOGRAFIKOA

Astelehena, hilak 21:

Elur-kota 700-800 m inguruan egongo da. Zaparrada txikiak botako ditu han-hemenka, bereziki kantauri isurialdean. Mendi inguruetan izotz txikia egingo du.

Aurreikusitako lodierak gainontzeko orduetarako: 0-1 cm 1000 m-ra, 0 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

Astearte, hilak 22:

Elur-kota 800-900 m-ra egongo da; goizean puntualki beherago egon liteke, batez ere barnealdeko eta ekialdeko bailaretan. Goizaldean prezipitazio txikia egingo du, bereziki kostaldean; goizean goizetik aurrera prezipitazio txiki-ertaina eta iraunkorra egingo du, ugariagoa egunaren bigarren partean eta kantauri isurialdean. Trumoi-ekaitzak izan daitezke eta txingorra egin dezake, batez ere egunaren amaieran eta kantauri isurialdean. Arabako zenbait tokitan eta mendi inguruetan izotz txikia egingo du.


Aurreikusitako lodierak: 10-40 cm 1000 m-ra, 0-5 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

Asteazkena, hilak 23:

Elur-kota 800-1000 m-ra egongo da; egunaren bigarren partean 600-800 m-ra jaitsiko da. Prezipitazio ertaina eta iraunkorra egingo du, ugariagoa kantauri isurialdean. Goizaldean eta kantauri isurialdean ekaitzak jo dezake eta txingorra egin dezake. Arabako zenbait tokitan eta mendi inguruetan izotz txikia egingo du.


Aurreikusitako lodierak: 10-60 cm 1000 m-ra, 0-20 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

ELUR-KOTA / ISOTERMA 0°C



	21/01/2019				ASTEARTEA 2019/01/22				ASTEAZKENA 2019/01/23				OSTEGUNA 2019/01/24			
Ordua	18:00	00:00	06:00	12:00	18:00	00:00	06:00	12:00	18:00	00:00	06:00	12:00	18:00			
Prob. hand. kota (m)	700-800	700-800	800-900	800-900	800-900	800-900	1000	1000	600-800	600-800	500-700	500-700	500-700			
Isoterma 0°C (m)	900	900	1000	1100	1200	1200	1300	1300	1100	1100	1100	1100	1100			

PILATUTAKO PREZIPITAZIOA 6 ORDURO



	21/01/2019		ASTEARTEA 2019/01/22				ASTEAZKENA 2019/01/23				OSTEGUNA 2019/01/24		
Ordua	12-18	18-24	00-06	06-12	12-18	18-24	00-06	06-12	12-18	18-24	00-06	06-12	12-18
max. est.(mm)	1	1	2	15	20	30	35	30	20	20	20	8	2
prob. hand.(mm)	0	0	0	5	10	15	18	15	10	10	10	5	1
min. est.(mm)	0	0	0	2	5	8	10	8	5	5	5	2	0

Oharra: Iragarritako prezipitazioa, 6 orduko tartean pilatzea espero den prezipitazioa da. Adibidez, 00-06etako prezipitazioak 0:00tik 6:00ra pilatutako prezipitazioa adierazten du.